

1994ko IRAILAREN 22ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamalauko irailaren hogeitabian, gaueko bederatziak direnean, Alkatea: Belen Zabala Olano; Udalkideak: Jose Antonio Mintegi Arrate, Julian Zubeldia Aierbe, Mikel Zelaia Ezenarro, Castor Olaetxea Garaikoetxea, Ramon Bengoetxea Altuna eta Iñigo Arreseigor Bengoetxea, eta Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

U-1 SEKTORE INDUSTRIALEKO PLAN PARTZIALAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA ETA SISTEMA ALDAKETAREN PROPOSAMENA

1.994ko Apirilaren 5eko, 63 zenbakidun, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta, 1.994ko Apirilaren 7ko, 63 Zenbakidun, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Lizartzako Udalak, 1.994ko Otsailaren 24ko Udal Batzarrean onartutako, Lizartzako Planeamendurako Laguntzazko Arauetako U-1 Sektorre Industrialeko Ordenazioaren Plan Partzialaren Lehen Onarpenari dagozkion Agiriak jendaurrean egoteko epea amaitu ondoren, denbora horretan, ez da interesatuen aldetik inolako alegaziorik jaso.

Halata guztiz, bere behin-behineko onarpena egin aurretik, Plan Partzialaren Agiriari dagozkion kontsiderazio batzu egitea beharrezkoa da.

Lehenik, Lizartzako Laguntzazko Arauak, U-1 Sektorrean, Konpentsazio Sistema edo eta, Udalak komenigarria ikusten badu, Kooperazio Sistema erabiltzea posibilitatzen dute.

Plan Partzialaren Aurrerapen Agirian, Sektorre horren aktuaziorako, Kooperazio Sistema aurrikusten zen; bainan, Lehen Onarpenerako proposatu zen

agirian, sistemaz aldatzen zen, Konpentsazio Sistema ezarriaz. Plan Partzialaren Agiriarekin batera, zehaztapen honi, lehen onarpena eman zitzaien.

Plan Partzialak ikuitzen dituen lur jabe interesatuen aldetik ez da inolako alegaziorik egon, jendaurrean egon den epe barruan. Horrekin, Plan Partzialaren ejekuzioa aurrera emateko interes gutxi eta partizipazio eza nabarmentzen da.

Sektore Industrial aurrera eramateko gestioak, Udala bera bultzatzen ari da, industrialde horretan kokatu nahiko luketen interesdunen kaptazioarekin, behar diren hirigintzako agirien tramitazioak ofizioz errextu eta bultzatuaz, eskatzaile potentzialei, erabat araututako sektore industrial bat eskaintzeko asmoz.

Guzti horregatik, Plan Partzialaren efektibitate eta birtualitaterako, Udalak parte hartu eta zehaztapenen ejekuzioa bultzatzea bidezkoa ikusten da; parte hartze hau, legez aurrikusten den, Kooperazio Sistemaren bidez egingo litzateke.

Honela eta horretarako luzatu den txosten juridikoaren arabera, proposatzen da,

- 1.- Plan Partzialaren Agiriaren Lehen Onarpenean aurrikusten zen aktuazio sistema aldatu eta Kooperazio Sistema ezartzea.
- 2.- Aurreko ebazpena, U-1 Sektore Industrialeko jabeei banaka eta pertsonalki jakineraztea, bera hartu eta hamabost eguneko epea luzatuaz, T.R.L.S. Legearen 146 artikulua dionaren ondorioetarako.
- 3.- U-1 Sektoreko Plan Partzialaren Agiriari Behin-Behineko onarpena ematea, aktuazio sistemaren aldaketa sartuaz, hau, Kooperazio Sistema gelditzen delarik.
- 4.- Gipuzkoako Foru Aldundiako Hirigintza Departamentura espedientea ez bidaltzea, goian aipatutako hamabost egunetako epea igaro eta alegaziorik ez dela egon esanaz, Udaleko ziurtagiria luzatu bitarte.
U-1 Sektore Industrialeko Plan Partzialaren Behin Behineko Onarpena eta

Sistema Aldaketaren proposamena, aho batez onartu dira.

U-1 SEKTOREKO ORDENAZIOKO PLAN PARTZIALAREN ARABERA, LIZARTZAKO LAGUNTZAZKO ARAUEN ALDAKETA PUNTUALAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA ETA AURRERAPENAREN BEHIN BETIKO ONARPENAREN PROPOSAMENA

1.994ko Apirilaren 5eko, 63 Zenbakidun, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta, 1.994ko Apirilaren 7ko, 63 Zenbakidun, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako, Lizartzak oUdalak, 1.994ko Otsailaren 24ko Udal Batzarrean onartutako Lehen Onarpena eta aldi berean, 1.994ko Maiatzaren 24ean onartutako eta, 1.994ko Ekainaren 10eko, 109 zenbakidun, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako Aurrerapenaren Agiriak jendaurrean egoteko epea amaitu ondoren, ez da interesatuen aldetik inolako alegazio edo iradokizunik jaso.

Hori dela eta, T.R.L.S. Legearen 114.2 artikuluan aurrikusitakoaren arabera, proposatzen da,

- 1.- Lizartzako Laguntzazko Arauen Aldaketa Puntualaren Agiriari Behin Behineko onarpena ematea.
- 2.- Aurrerapenari Behin Betiko onarpena ematea.
- 3.- Hirigintzazko Espedientea, Gipuzkoako Foru Aldundiara bidaltzea, behin betiko onartua izan dadin.

U-1 Sektoreko Ordenazioko Plan Partzialaren Arabera, Lizartzako Laguntzazko Arauen Aldaketa Puntualaren Behin Behineko onarpena eta Aurrerapenaren Behin Betiko onarpenaren proposamena, aho batez onartu dira.

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK DIRELA ETA, HAUTESKUNDE EGUNERAKO MAHAIKIDEEN AUKERAKETA

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak 5/1.990 Legearen 43. atala bete

eta Legez jarritako egiteko guztiak bete ondoren, Udalbatzar honek ondoren zehazten diren Hauteskunde Mahaiak antolatu ditu, ertan zehazten diren norbanakoak honako kargu hausterako izendatuz.

ATALA: 1 - MAHAIA: 1

TITULARRAK

Lehendakaria: AGIRRE IRARRETA, AINHOA	72.445.556
1. Mahaikidea: LULUAGA ALTUNA, JOSE JABIER	72.445.514
2. Mahaikidea: IBARGUREN ESNAOLA, FERNANDO	15.885.109

ORDEZKOAK

Lehendakariarena: MENDIA BARRIOLA, ITZIAR	44.540.750
" : ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE	34.096.424
1. Mahaikidearena: AGINAGA AROZENA, JESUS M ^a	72.445.518
" : BUSTAMANTE SANCHO, TOMAS	72.435.355
2. Mahaikidearena: ETXEBERRIA MAIZ, GREGORIA	15.884.455
" : ZUBILLAGA OTXOTORENA, ASIER	44.139.898

ALKATETZAREN DEKRETUAK

ANTTON AZPIROZ OLAETXEA Jaunari, Andresoro Baserriaren atzekaldean dagoen borda konpontzeko baimena eman zaio.

MATIAS OLARIAGA Jaunari, Ainene Berri, 4. Ezk. etxeko sukaldean obra

egiteko baimena eman zaio.

M^a JESUS MENDIZABAL IRAOLA Andreari, Istileta Bekoa Baserriko teilatuan teile, egurre eta lata berria jartzeko baimena eman zaio.

Baldintza:

Etxearen egurrezko egituraren habe zutabe edo beste elementurik aldatu edo ordezkatu beharra izan balitz ez du baimen honek babesten eta hortarako gai den teknikariaren proiektua aurkeztea beharrezkoa erizten da.

ANGEL GARRIDO ALONSO Jaunari, Goltzur Baserria eraberritzeko eskaerari buruz Dekretu hau eman zela:

- 1.- Goltzur baserria eraberritu nahi da bertan nekazal-turismoko erabilera finkatzeko. Teilatu azpiko solairua aprobetxatzeko hau metro erdi bat gehiago altxa nahi da eta egurrezko etxe eta teilatuaren egitura kendu eta hormigoizkoaz ordezkatu nahi da. Guzti hau baserriaren erdian, bitan bait dago banatua bi jabeen artean.
- 2.- Indarrean dauden Arau Subsidiarioak "Eraikitzea baimenduta duen zonan" kokatzen da etxea. Zona honetan dauden eraikuntzak finkatu egiten dira eta hazi ere onartzen da. Eta esplotazio bakoitzeko eraikuntza bat agintzen da 17. artikuluan. Beraz, baldintza hau ez du betetzen.

Hazkuntzeko baldintzak ez ditu betetzen egitasmoak edo proposamenak, altueran hazitzea ez bait dago jasota, zabalera edo luzera besterik ezin bait da.

- 3.- Guzti hau kontutan izanik ezingo litzateke egitasmoa onartu ez bait dator bat indarrean dauden Arauekin.

Ondorioz, nekazal-turismo erabilera emateko Diputazioko Nekazaritza saileko aldeko txostena jasotzea komenigarria erizten da alde batetik eta

bestetik, hazitzeko, etxe osoa batera hazi beharko litzateke bi jabeen adostasunarekin eta luzera zein zabalera Arau Subsidiarioetan agintzen den erara.

- 4.- Espedientearekin aurrera egiten bada goi mailako Arkitektoaren proiektu bisatua aurkeztu beharra dago eta aurretik, sarbidea nondik izango duen adierazi beharra dago, ez baita adibidez, Goltzur Zelaitik barrena bidezkoa erizten. Ura nondik hartzen den eta bere edangarritasuna ziurtatu beharko litzateke.

Guzti honen arabera, BAIMENIK EZ EMATEA erabaki da.

INAXIO ALTUNA AZURMENDI Jaunari, Tegi Merkatalaren fatxada itxeko aurkeztu duen baimen eskakizunari buruz, Dekretu hau luzatu da:

- 1.- Etxeko fatxadari erantsita, erreka aldera gas erregaiaren bonbona pare baten antolapidetza egin nahi da.
- 2.- Arau Subsidiarioetako 4. Alean kokatzen da eta hemen Erabilera eta Hornidura atalean laguntzarako eraikinak arautzen dira eta debekatu egiten dira nahiz aparte izan, nahiz oraingoei erantsita izan.

Beste aldetik ibaiaren beste aldean etxebizitza berriak egiten direnean, Kale Nagusiako etxeen atzeko fatxadak garrantzi haundiagoa hartuko dute eta komenigarria ikusten da hauek berregokitzea edo gutxienez lur-zoru legean 246. artikuluan aipatzen den itxura mantentzea. Beste aldetik, lursail horren jabetza ez dago justifikaturik. Lurralde Antolaketarako Zuzenbideak 15 m. zabalera zona bat proposatzen dute Araxes Ibaian bere babeserako.

Etxe horren alboko fatxadan badago aukerarik bonbona hoiek jartzeko, gaur egun aprotxatzen ez den eskailera azpia.

- 3.- Ondorioz, eskatutako baimena EZ EMATEA erabaki da.

MARTIN ETXEBERRIA MAIZ Jaunari, Plaza Ondo Etxean, Tegi Merkatalaren fatxada ixteko baimena eman zaio, baldintza honekin:

Jarri behar diren ateak, eta fatxadaren ixtura eta margoketa, denak berdinak jarri eta egin beharko dira.

MIGEL GOIKOETXEAUNDIA ARRUABARRENA Jaunari, Plaza Ondo Etxean, Tegi Merkatalaren fatxada ixteko baimena eman zaio, baldintza honekin:

Jarri behar diren ateak, eta fatxadaren ixtura eta margoketa, denak berdinak jarri eta egin beharko dira.

JOSE ARZADUN EGILUZ Jaunari, Pinu Landaketari buruz Dekretu hau luzatu da:

Ikusiz, Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetan azaltzen den, eraikuntzak uzten diren gunean, OREXA-ALDEA izeneko terrenoan, JOSE ARZADUN EGILUZ Jaunak, eginiko pinu landaketak.

Ikusiz, Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetan (21. bis Art.)ren arabera, aipatutako gunean, bertako ez diren hosto iraunkorra duten zuhaitz moten landaketa masiboa, debekaturik dagoela.

Kontutan hartuaz, Legez aurrera eramandako espedientearen arabera, 1.992ko Apirilaren 22ko Alkatetzak luzatutako Dekretuaren bidez, terreno horretan landatutako pinuak ateratzeko hamabost egunetako epea eman zitzaiola.

Kontutan hartuaz, pinuak ateratzeko agindua orain dela 2 urte eman zela eta gaur egundaino ez dela ezertxo ere egin, ERABAKI DUT:

Berriro hamabost egunetako epea ematea, landatutako pinua ateratzeko.

Honela egiten ez bada, Lizartzako Udalak, ateratzea, ejekuzio subsidiarioan egingo du, gastuak, interesdunaren gain joango direlarik.

FERMIN EIZAGIRRE TREKU Jaunari, Pinu Landaketari buruz, Dekretu hau luzatu da:

Ikusiz, Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetan azaltzen den, eraikuntzak uzten diren gunean, ANDRESORO-ALDEA izeneko terrenoan, FERMIN EIZAGIRRE TREKU Jaunak, berriro eginiko pinu landaketak.

Ikusiz, Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetan (21. bis Art.)ren arabera, aipatutako gunean, bertako ez diren hosto iraunkorra duten zuhaitz moten landaketa masiboa, debekaturik dagoela.

Ikusiz, Legez aurrera eramandako espedientearen arabera, 1.990eko Ekainaren 20ko Alkatetzak luzatutako Dekretuaren bidez, terreno horretan bertan, 1.989 urtean landatutako pinuak ateratzeko agindua eman zela.

Kontutan hartuaz, agindua beteaz, landatutako pinuak atereak izan zirela, eta Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioak eta Baso-Landaketa Muga Arauetan dioenari jaramonik egin gabe, FERMIN EIZAGIRRE TREKU Jaunak, berriro pinua landatu duela.

Kontutan hartuaz, Legez aurrera eramandako espedientearen arabera, 1.992ko Apirilaren 22ko Alkatetzak luzatutako Dekretuaren bidez, terreno horretan landatutako pinuak ateratzeko, hamabost egunetako epea eman zitzaiola.

Kontutan hartuaz, pinuak ateratzeko agindua orain dela 2 urte eman zela eta gaur egundaino ez dela ezertxo ere egin,
ERABAKI DUT:

Berriro hamabost egunetako epea ematea, landatutako pinua ateratzeko.

Honela egiten ez bada, Lizartzako Udalak, ateratzea, ejekuzio

subsidiarioan egingo du, gastuak, interesdunaren gain joango direlarik.

JOSE M^a AROZENA AGIRREZABALA Jaunari, Pinu Landaketari buruz, Dekretu hau luzatu da:

Ikusiz, Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetan azaltzen den, eraikuntzak uzten diren gunean, LIZARDI izeneko terrenoan, JOSE M^a AROZENA AGIRREZABALA Jaunak, berriro eginiko pinu landaketak.

Ikusiz, Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetan (21. bis Art.)ren arabera, aipatutako gunean, bertako ez diren hosto iraunkorra duten zuhaitz moten landaketa masiboa, debekaturik dagoela.

Ikusiz, Legez aurrera eramandako espedientearen arabera, 1.990eko Ekainaren 20ko Alkatetzak luzatutako Dekretuaren bidez, terreno horretan bertan, 1.989 urtean landatutako pinuak ateratzeko agindua eman zela.

Kontutan hartuaz, agindua beteaz, landatutako pinuak atereak izan zirela, eta Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioak eta Baso-Landaketa Muga Arauetan dioenari jaramonik egin gabe, JOSE M^a AROZENA AGIRREZABALA Jaunak, berriro pinua landatu duela.

ERABAKI DUT:

Berriro hamabost egunetako epea ematea, landatutako pinua ateratzeko.

Honela egiten ez bada, Lizartzako Udalak, ateratzea, ejekuzio subsidiarioan egingo du, gastuak, interesdunaren gain joango direlarik.

LORENZO BARRIOLA TOLOSA Jaunari, Pinu Landaketari buruz, Dekretu hau luzatu da:

Ikusiz, Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetan azaltzen den, eraikuntzak uzten diren gunean, ARTETXE-BURUA izeneko terrenoan, LORENZO BARRIOLA TOLOSA Jaunak, berriro eginiko pinu landaketak.

Ikusiz, Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetan (21. bis Art.)ren arabera, aipatutako gunean, bertako ez diren hosto iraunkorra duten zuhaitz moten landaketa masiboa debekaturik dagoela.

Ikusiz, Legez aurrera eramandako espedientearen arabera, 1.990eko Ekainaren 20ko Alkatetzak luzatutako Dekretuaren bidez, terreno horretan bertan, 1.989 urtean landatutako pinuak ateratzeko agindua eman zela.

Kontutan hartuaz, agindua beteaz, landatutako pinuak atereak izan zirela, eta Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioak eta Baso-Landaketa Muga Arauetan dioenari jaramonik egin gabe, LORENZO BARRIOLA TOLOSA Jaunak, berriro pinua landatu duela.

Kontutan hartuaz, Legez aurrera eramandako espedientearen arabera, 1.992ko Apirilaren 22ko Alkatetzak luzatutako Dekretuaren bidez, terreno horretan landatutako pinuak ateratzeko, hamabost egunetako epea eman zitzaiola.

Kontutan hartuaz, pinuak ateratzeko agindua orain dela 2 urte eman zela eta gaur egundaino ez dela ezertxo ere egin,
ERABAKI DUT:

Berriro hamabost egunetako epea ematea, landatutako pinua ateratzeko.

Honela egiten ez bada, Lizartzako Udalak, ateratzea, ejekuzio subsidiarioan egingo du, gastuak, interesdunaren gain joango direlarik.

URJENTZIZKO GAIA

Alkateak hitza harturik, zera dio:

Bilkura Nagusirako deia egin ondoren, gaur arratsaldean bertan, PRESOEN ALDEKO GOSE GREBALARIAK aurkeztutako mozioa iritxi da.

Urjentzi bidez, gaurko Bilkuran tratatzea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

PRESOEN ALDEKO GOSE GREBALARIAK EUSKAL HERRIARI

Idatzi honen bitartez Euskal Herriko auzo eta herri guztietan azken aste honetan presoen alde gose greban egon garenok gose greba eta borrokaren amaiera jakinarazi nahi dizkizugu. Gose greba amaitu dugu, baina hala ere, euskal preso politikoaren eskubideak eta duintasuna bortxatuak diren bitartean borrokan jarraituko dugunaren gure konpromezua adierazi nahi dugu. Hain zuzen, presoek legediaren arabera dagozkien eskubideak errespetatuak ez zaizkien bitartean atsedetik gabe borrokan jarraituko dugunaren gure konpromezua adierazi nahi dugu. Hain zuzen, presoek legediaren arabera dagozkien eskubideak errespetatuak ez zaizkien bitartean atsedetik gabe borrokan jarraituko dugula adierazi nahi dugu. Hauek dira, nagusiki, bortxatuak zaizkien eskubideak:

- Legedi penitentiarioaren arabera, bueltaezin eta sendaezinezko gaixotasuna duten euskal presoak 60. artikularen babesean aske egon behar lukete, beraz, beren baldintza gabeko kaleratzea exigitzen dugu.
- Kondizionalaren babesean eta zigorraren 3/4ak beteak dituztenez 77 euskal presok kalean behar lukete, beraz, beren baldintza gabeko kaleratzea eskatzen dugu.
- Preso orok bere zigorra bere jaioterritik ahalik eta hurbilen bete behar duela dio legedi penitentiarioak "bere sustraigabetze soziala eman ez dadin", euskal presoek kasuan, errealitatea guztiz alderantzizkoa da; euskal presoek estatu espainoleko makina bat espetxetan daude sakabanatuak beren herriarekiko lotura eta komunikazioa hautsi nahi dutelarik. Gainera, dispersioak presoek zigor gaineratua suposatzeaz gain, senitartekoei ere hamaika arazo sortzen dizkie: bisitak egiteko milaka kilometro egin beharra, bidean ordu mordo bat sartuaz eta honek suposatzen duen istripu arrisku eta diru galera haundiekin, etabar luze bat. Hortaz, euskal presoek berehalako eta baldintza gabeko birbatutzea

exigitzen dugu Euskal Herriko zenbait espetxetan.

Dakusazuenez, estatu espainolak bere hiritarren eskubideak eta konkretuki presoek eskubideak ez defendatzeaz gain, egunero bortxatu egiten ditu eta are gehiago bere legedia ere ez du betetzen. Ondorioz, estatu espainolean demokrazian gaudela eta espainol estatua zuzenbidezko estatua dela esatea aberrazio hutsa dela esan dezakegu, demokrata deritzon estatu orok eta bere administralgoak giza eskubide eta bere hiritarren eskubideak errespetatuak izan daitezen lan egin behar baitu.

Azkenik, eta bukatzeko, presoek Giza Eskubideen alde eta EUSKALDUNAK DIRELAKO EUSKAL HERRIRA lemapean Bilbon datorren Urriak 1ean burutuko den manifestazio nazionalari gure adostasuna azaldu nahi diogu, eta bide batez, joan zaitezten animatu nahi zaituztegu.

ELKARTASUNA, ASKATASUNA, PRESOEKIN IZAN ETA LORTU HERRIARENA

Presoen Aldeko Gose Grebalariak aurkeztutako mozioa, aho batez onartu da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, bederatzi t'erdia direnean.